

Errealismoa

3.1. Sarrera

Errealismoa izan da diziplinako joera teoriko hegemonikoa Bigarren Mundu Gerratik gaur egunera arte. Aldaera desberdinak izan ditu denboran zehar, alde nabarmenak baina baterako ezaugarri batzuk ere izan dituztenak. Aldaera horien artean hauek nabarmentzen dira: *errealismo politikoa* Gerra Hotzaren lehenengo hamarkadetan, *neorrealismoa* eta *errealismo estrukturala* batez ere 80ko hamarkadan, eta, Gerra Hotzaren ondoren, *errealismo defentsiboa*, *errealismo ofentsiboa* eta *errealismo neoklasikoa*³⁰.

Plano akademikoan eta politikoan, ikuspegi errealistak izan du indarririk eta eraginik handiena. Plano teorikoari dagokionez, errealismoak eragin erabakigarria izan du NHen diziplina zientifiko autonomoa izan dadin, bere sorreran ekarpenak egin zituzten beste diziplina batzuekin erkatuta. Errealismoaren eraginaren ondorioz, NHetako beste joera teorikoak bere alternatiba gisa sortu dira askotan, bere aurkako kritikak eginenez. Horrela, bada, gaur egun oraindik ere funtsezko ardatza da diziplinako eztabaidetan. Bestalde, plano politikoan, gobernu askoren gida izan da —batez ere AEBko gobernuarena—, beren kanpo-politikak bideratzeko erabili baitute³¹.

³⁰ Hemen ez ditugu ikusiko, baina beste aldaeretakoa batzuk hauek dira: Robert Gilpin-en «errealismo hegemonikoa» edo Raymond Aron-en «soziologia historiko frantziarra».

³¹ DONNELLY, Jack (2005), «Realism», in BURCHILL, Scott *et al.*, *Theories of International Relations*, Palgrave Macmillan, New York, 29. or.

Joera teoriko honek duen boterearen erakusgarri da bere buruari izena jartzean izan zuen arrakasta: errealismoa. Korronte honetako lehenengo egileek «errealistatzat» hartu zituzten beren buruak, mundu erreala aztertzen zutela argudiatuta: zen bezalakoa, ez izan beharko lukeen modukoa, bi mundu gerren bitartean ibili zirenek ez bezala —azken horiei «idealista» esan zieten mespretxuz—. Diziplinan *errealismo* izena ezarri zuten, baina, egia esan, ez dute azterketa neutral eta erabat zientifikorik egiten. Horren ordeztan, munduaren ikuspegi jakin batetik eta balio jakin batzuek aritzen dira. Are gehiago, beren azterketak baliagarriak izan dira nazioarteko sistema azaltzeko, eta, horrez gain, erabakigarriak izan dira estatuen artean areriotasunean oinarritutako harremanak ezartzeko, batez ere Gerra Hotzean.

Ikuspegi errealista mendeak dituen filosofia politiko baten ondorioa da. Filosofia zahar horri *hobbesiar* esaten zaio askotan. Tradizio intelektual horrek ikuspegi pesimista du munduari buruz. Beraren ustez, nazioarteko harremanen protagonistak estatuak dira, eta harremanak anarkikoak eta gatazkatsuak, lankidetzan oinarritu ordeztan aurkakotasunean eta gatazkan oinarritzen direlako. Bestela esanda, hauek dira errealismoaren aldaera guztiek dituzten oinarritzko ezaugarri komunak:

- *Estatismoa*. Estatu subiranoak dira nazioarteko sistemako parte-hartzaile nagusiak, eta haiek baino aginte handiagorik ez dagoenez (mundu mailako gobernurik ez dagoenez), sistema horren ezaugarria *anarkia* da.
- *Boterea* bilatzea da estatuak beren biziraupena (hau da, lurralde-integritate eta autonomia) bermatzeko duten xede nagusia. Nazioarteko sistema anarkikoa denez, estatuen *interes nazional* nagusia beren biziraupena da, eta, hori lortzeko, bakoitzak bere botere politikoa eta militarra pilatu behar ditu. Helburu nagusia boterea lortzea da, eta gainerako helburu guztiak (ekonomikoak, sozialak, kulturalak, etab.) horren mende geratzen dira. Alabaina, Moure-k esaten duen bezala, estatu baten jokaera gutxieneko motibazioaren (bere biziraupena) eta gehieneko motibazioaren (mundu mailako hegemonia) artean ibil daiteke.³²
- *Autolaguntza* (*self-help*), estatuaren ekintza arautzen duen printzipio legez: sistema anarkikoa denez (ez dago mundu mailako gobernurik), estatu bakoitzak bere segurtasuna eta biziraupena bermatu behar ditu, eta ez da zuzurra horiek beste parte-hartzaile edo nazioarteko erakundeen esku uztea, esaterako, Nazio Batuen esku.

³² MOURE, Leire (2015), «El realismo en la teoría de las Relaciones Internacionales: génesis, evolución y aportaciones actuales», in ARENAL, Celestino del eta José Antonio SANAHUJA (koord.), *Teorías de las Relaciones Internacionales*, Tecnos, Madril, 83. or.

Horretarako, beren gaitasunak areagotu, itun politiko-militarrak egin, eta estatuen arteko botere-mailako orekak ezarri behar dituzte gerrak saihesteko.

3.2. Joera errealistaren sustrai intelektualak

Joera errealistak pentsamenduaren tradizio zahar batean ditu sustraiak: gobernariak kanpo-politika *estatuko arrazoari* (*raison d'état*) jarraiki egin beharko luketela dioten autoreek eratzen duten tradizioan. Horren arabera, etsaitasuneko testuinguruan bilatu behar dira estatuaren segurtasuna eta boterea, eta zenbait printzipio eta gomendio proposatu dituzte horretarako³³.

Seguru asko, tradizio horren sustrairik antzinakoena Tuzidides historialari grekoaren *Peloponesoko Gerraren historia* (K.a. v. mendea) izango da. Liburu horretan, Atenasen eta Espartaren arteko gerraren arrazoiak azalpen bat eskaintzen da: Atenasko botereak gora egin zuen, eta Esparta horren beldur zen, bere biziraupena mehatxatzen zuela uste zuelako; horren ondorioz, gerrara joan zen. Lan horretan, hainbat hausnarketa egin ziren mendeetan barrena nazioarteko politikan oinarritzkoak izan diren eta gero pentsamendu errealistan hartu diren alderdi batzuei buruz. Hori da, hain zuzen, lanaren ekarpenik garrantzitsuenak. Hasteko, liburuari jarraiki, bi hiri-estatuaren artean *boterearen oreka* hautsi zelako hasi zen gerra. Boterearen orekaren ideia hori oinarritzkoa izan da azterketa errealistetan; haien ustez, funtsezkoa izan zen Gerra Hotzean bi blokeen arteko bakeari eusteko. Bestalde, Tuzididesen ustez, estatuaren kanpo-politikaren xede dira boterea eta besteak mendean hartzeko nahia; eta ezaugarri horiek unibertsalak dira, giza izaeraren berezko ezaugarrien ondorioak baitira, geurekoi-keria, anbizioa eta beldurra bezala. Ikusiko dugunez, planteamendu hori errerealismo klasikoaren oinarri filosofikoa da.

Errealismoaren aurrekari nagusietako batzuk Errenazimentuan azaldu ziren (xv. eta xvi. mendeetan), orduan, estatu modernoa agertu izanaren ondorioz ikuspegi estatuzentrikoa garatu baitzen pentsamendu politikoan. Niccolò Machiavelli, edo Makiavelo (Florentzia, xvi. mendea), eta berak egindako *Printzea*³⁴ lan ospetsua —botereari buruzko hausnarketa eragin-garria— nabarmentzen dira. Printzeak (hau da, gobernariak) izan beha-

³³ DUNNE, Tim eta Brian C. SCHMIDT (2011), «Realism», in BAYLIS, John, Steve SMITH eta Patricia OWENS, *The Globalization of World Politics. An Introduction to International Relations*, Fifth Edition, Oxford University Press, Oxford, 86. or.

³⁴ MACHIAVELLI, Niccolò (1986), *Printzea: Napoleon Bonaparteren oharrez*, Elkar, Donostia (itzultzailea: Iñaki Azkune Mendia).

rreko jarrerak zehazten ditu liburuak, eta gomendioak ematen dizkio estatu indartsua bermatzeko eta bere interesak defendatzeko; horrela, bada, helburu praktikoko horiek lortzeko metodo guztiak onargarriak direla esaten du (gezurra, manipulazioa, ankerkeria, heriotzak, etab.). Hau da, Makiavelok gogoeta etikorik egin gabe aztertu zuen politika, eta errealismoak planteamendu hori bere egin zuen estatuen arteko erlazioak aztertzean.

Alabaina, pentsamendu errealistaren aurrekaririk garrantzitsuenetakoa, seguru asko, Thomas Hobbes (Ingalaterra, XVII. mendea) izango da, *Leviathan* lanarekin. Gizarte-antolakuntzaren eta estatuaren jatorriaren azalpen arrazionala (ez erlijiosoa, lehenago bezala) eman nahi izan zuen liburuak, *gizarte-hitzarmenaren* fruitua dela baitio. Horren bidez, jendeak subirano bat (*leviathan*) aukeratzen du, eta, horrenbestez, bakea eta babesa izatearen truke, uko egiten dio bere askatasunaren eta eskubideen zati bati.

Hobbesen planteamendu horren abiaburu filosofikoa ezkortasun antropologikoa da, hau da, gizakiari buruzko ikuspegi negatiboa (txarra, berekoia, gutziatsua, bortitza...), aipatzen dituen latinezko esaldiek argi uzten dutenez; adibidez, *homo homini lupus est* (gizona gizonarentzat otso) eta *bellum omnium contra omnes* (denak denen aurkako gerra). Gizakiaren *naturaren berezko egoera* hori gizartera igarotzen da; eta, horren ondorioz, gizarteak ere berezko joera du indarkeriarako. Dena dela, estatua dagoenez, berezko egoera hori gaindi daiteke, bere mugetan ordena eta bakea bermatzen dituelako.

Hobbesen ideia horiek oinarritzkoak izan ziren errealismo klasikoa eratzeko, eta errealismoak nazioarteko harremanen azterketan ezarri zituen. Errealismoaren iritziz, estatuaren barruan gertatzen denaz bestera, nazioarteko harremanetan ez dago gizarte-hitzarmenik, ezta estatu subiranoak baino goragoko aginterik ere; hori dela eta, naturaren berezko egoerak iraun egiten du, hau da, boterea lortzeko borroka-egoerak eta gerrarako etengabeko arriskuak.

3.3. Errealismo politikoa

NHen diziplinaren barruan, Makiavelo, Hobbes eta beste batzuegan sustraiak zituen pentsamenduaren tradizio klasiko horretan oinarritu zen lehenengo joera *errealismo politiko* izenekoa izan zen. Korronte hori Bigarren Mundu Gerra amaitu zenean hasi zen, bi faktoreren ondorioz. Batetik, idealismoaren porrota zegoen; sustrai liberalak zituen korronte hori Lehenengo Mundu Gerraren ondoren jaio zen (izan ere, ikusiko dugunez, diziplinaren sortzailea izan zen), eta bake iraunkorra lortu nahi zuen, hainbat neurri legal eta politikoren bidez. Mundu-gerra berri bat sortu zen, or-

dea, eta horrek proposamen baketsu horien porrota ekarri zuen. Bigarren faktorea 40ko hamarkadaren amaieratik sortutako testuinguru berria izan zen: Gerra Hotza. Gerra Hotzaren ondorioz, bi blokek mundu mailako liskarra izan zuten —batetik, bloke kapitalistak eta, bestetik, sozialistak—, mehatxu nuklearra eta armamentuen lasterketa barne.

Bada, une historiko tirabiratsu horretan sortu zen errealismo politiko, xede praktikoa batekin: gobernuak jokatzeko jarraibideak eskaintzea nazioarteko gertalekuan, konfrontazio nuklearra eta defentsako eta segurtasun nazionalerako arazoak nagusi zirena garaian. AEBko kanpoko politikak ikuspegi hori agertzea sustatu zuen, eta, batez ere, herrialde horretan eta, hein txikiagoan, Britainia Handian garatu zen. Aldeko testuinguru horretan, korrante berriak harrera ona izan zuen zirkulu akademikoetan eta politikoetan. II. Mundu Gerraren aurreko idealismo liberala baztertu, eta hegemoniko bilakatu zen ia gaur egunera arte, nahiz eta 70eko hamarkadan beste ikuspegi alternatibo batzuk ere sortu. Dena dela, printzipio idealista batzuek iraun egin zuten II. Mundu Gerra bukatu ondoren ere, hala nola, nazioarteko eskubidearen eta aldeaniztuntasunaren defentsak. Horiek Nazio Batuen sorreran islatu ziren 1945ean.

Errealismoak berak hamarkadetan zehar hedatu duen ideia da idealismoa ordezkatu zuela, bi korronteen arteko eztabaida batean gailendu ondoren (diziplinako *lehenengo eztabaida* izenekoan), bere nagusitasun teorikoari esker: idealismoa erabat utopikoa litzateke; aldiz, errealismoa zientifikoa litzateke, eta, beraz, azterketa eta aholku erabilgarriak eskain ditzake herrialdeen kanpo-politikarako. Egia esan, hainbat egilek esan bezala, balizko *lehenengo eztabaida* horri buruzko azalpena aski interesatua eta partziala da³⁵. Alde batetik, garai hartan errealismoak ez zuen berak esaten duen zorrotzasun zientifikorik: bi joerek —errealismoak eta idealismoak— ez zuten teorizazio sistematiko eta zientifikorik; munduari buruzko bi ikuskera baizik ez zituzten, biak mutur banatan kokatuta, oso ideologizatuta eta estereotipatuta. Bestetik, argudioak ez ziren aurrez aurre jarri, eta, horren ondorioz, ez zitzaion bata besteari gailendu; izan ere, ia ez ziren garai berekoak ere izan. Egia esan, pentsamendu batek beste ordezkatu zuen ekintzaren bidetik; hau da, testuinguru berri bat sortu zen, eta, bertan, AEB superpotentzia militar gisa azaldu zen eta kanpoko politika bat zehaztu zuen, bere interesak mundu mailan aldezteko. Egoera berri horretan, errealismoak metodologia erabilgarria eskaini zion Ipar Amerikako gobernuari, ekintzak aztertzeke eta Gerra Hotzean kanpo-politikako erabakiak gidatzeko. Are gehiago, errealistek munduaz zuten ikus-

³⁵ Balizko lehenengo eztabaida horren berrirakurketa hemen ikus daiteke, aipatu den ukitu prorrealista horrekin: SCHMIDT, Brian C. (1998), «Lessons from the Past: Reassessing the Interwar Disciplinary History of International Relations», in *International Studies Quarterly*, 42. lib., 3. zk., 433.-459. or.

pegia bat zetorren AEBko elite militar eta politikoez zituzten ideiekin; bezaraz, behar zuten babes politiko eta materiala jaso zuten, arlo akademikoan behar zuten hegemonia lortzeko³⁶.

Errealismo politikoa eratzeko urrats nagusia Edward H. Carrrek *The Twenty Years' Crisis 1919-1939* lanean idealismoari egin zion kritika izan zen. Bigarren Mundu Gerra hasi baino hilabete batzuk lehenago argitaratu zen lana³⁷. Idealismoari kritika handia egin zion lan horretan, nazioarteko harremanetan izandako «utopismoa» eta botere faktorea kontuan hartu ez izana aurpegiatu baitzizkion. Bere esanetan, arrazoi horiengatik, liskarrak lehertzeaz zeuden. Bere iritziz, idealisten nahia, utopia, oso handia zen, baina ekintzen azterketa oso ahula. Horren aurrean, egile hau izan zen munduaren azterketa «errealista»ren beharra aldeztu zuen lehenengoa: mundua den bezala hartuta, eta ez izan beharko lukeen bezala. Horrela, etapa «utopiko»tik etapa «zientifiko»ra igarotzea proposatu zuen, ekintzen arrazoiak eta ondoriak era objektiboz eta desideologizatuz aztertzeko. Ikuspegi aski distortsionatu eta manikeo batean oinarritzen da, baina, hala ere, idealismoari egin zion kritikak eragina izan zuen, atek ireki baitzizkion errealismo politikoari, eta ekarpen erabakigarria egin baitzuen diziplina etorkizunean birbideratzeko.

Alabaina, errealismoa 1948an jaio zela esan ohi da, hau da, Hans J. Morgenthau-ren *Politics Among Nations. The Struggle for Power and Peace* lana argitaratzearekin³⁸. Izan ere, egile hori izan zen errealismoaren formulazioari ekarpenik argiena egin ziona. Abiaburu gisa, nazioarteko harremanak ulertzeko, beharrezkotzat jo zuen era enpirikoan egiaztatzeko moduko teoria bat eraikitzea, lege objektiboen bidez errealitatearen eta ekintzen azterketan oinarrituta; hau da, ez zuen zientzia utopikoa edo normatiboa izan behar, ez eta errealitatearekin zerikusirik ez duten eta aurrez sortutako printzipioetan, asmo onetean edo moralitatean oinarritu behar ere. Horregatik, epistemologia positibista hartu zuen, eta hori izan zen nagusi diziplinan ondorengo hamarkadetan. Bestalde, bere ustez, diziplina autonomoa izan behar zuen, aurrekoak ez bezalakoa, historia edo nazioarteko zuzenbidea adibidez.

³⁶ BOOTH, Ken (1996), «75 Years on: Rewriting the Subject's Past – Reinventing its Future», in SMITH, Steve, Ken BOOTH eta Marysia ZALEWSKI (1996), *International Theory: Positivism and Beyond*, Cambridge University Press, Cambridge, 329. or.

³⁷ CARR, Edward Hallett (1939), *The Twenty Years' Crisis 1919-1939. An Introduction to the Study of International Relations*, Macmillan/St. Martin's Press, Londres eta New York.

³⁸ MORGENTHAU, Hans J. (1948), *Politics Among Nations. The Struggle for Power and Peace*, Alfred A. Knopf, New York. 1960ko argitalpena gaztelaniara itzulita dago: *La lucha por el poder y por la paz*, Editorial Sudamericana, Buenos Aires, 1963.

Lan horretan, errealismo politikoaren sei printzipioak definitu zituen Morgenthauk³⁹, Tuzididesen, Makiaveloren eta beste egile klasiko batzuen ekarpenetan oinarrituta. Nazioarteko harremanez zuen ikuspegia laburtzen dute. Laburbilduz, Morgenthauk dioenez, nazioarteko politikak logika edo lege objektibo baten arabera funtzionatzen du: nor bere interesa lortzeko eta botere handiagoa bilatzeko joeraren arabera. Lege hori objektiboa, iraunkorra eta unibertsala da (denbora eta toki guztietan dago), gizakiaren izaeraren ondoriozkoa baita (egoista eta oldarkorra), eta hori bizitza sozialean islatzen baita. Gatazka orokorreko testuinguru horretan, gobernariak interes nazionala aldeztu nahi dute, eta interes hori aldatu egin daiteke gorabeheren arabera. Ekintza politiko horri ezin zaizkio printzipio moral unibertsalak zuzenean ezarri; egoera eta gorabeheren arabera ulertu behar dira, ordea. Gainera, lege objektibo hori egoteari esker, nazioarteko harremanen azterketa arrazionalak egin daitezke⁴⁰.

Morgenthauaren pentsamendua erabakigarria izan zen Gerra Hotzean indarrean egon zen errealismo politikoa edo klasikoa eratzeko. Joera horretako oinarritzko postulatuak hauek dira:

- a) *Estatuzentrismoa*, beraren iritziz estatu subiranoak nazioarteko parte-hartzaile nagusiak direlako, eta gainerakoak, berriz —esaterako, nazioarteko erakundeak— estatuen eta horien interesen mende daudelako. Estatuak parte-hartzaile autonomoak eta arrazionalak dira, hau da, erabakiak hartzen dituzte beren segurtasuna defendatzeko, beren interesen eta gaitasunen eta testuinguruaren azterketa arrazionala oinarritzat hartuta. Gainera, bidezkoa eta legezkoa da estatu bakoitzak bere interes nazionalak defendatzea eta bere segurtasuna handitu nahi izatea.
- b) *Nazioarteko sistemaren izaera anarkikoa eta gatazkatsua*, sistemak ez baitu estatu subiranoak baino botere komun handiagorik, legea eta ordena ezartzeko, nazio mailan gertatzen den moduan. Errealistek barneko eremua eta nazioartekoa bereizten dituzte; barneko eremu horretan, estatuaren agintaritzak ordena eta segurtasuna bermatzen ditu, biztanleriaren eta gobernuaren arteko *gizarte-hitzarmenaren* bidez; nazioartekoan, berriz, agintaritza zentralik ez dagoenez, naturaren egoerak arautzen ditu estatuen arteko harremanak, denak denen aurkako gerra egoteak, gizarte-hitzarmenaren aurreko *naturaren berezko egoera* zenak. Bestela esanda, Hobbes bezalako egileek giza izaeraz duten ikuspegi pesimista nazioartean

³⁹ Printzipio hauek azaltzen dira, adibidez, in ARENAL, Celestino del (1990), *Introducción a las...*, *op. cit.*, 113.-117. or.

⁴⁰ DONNELLY, Jack (2005), «Realism», *op. cit.*, 31. or.

ezarrita, errealista klasikoen ustez, estatuak bizirauteko borrokan ari dira, kaoserako eta gatazkarako etengabeko joera gailentzen diren testuinguruan. Beren interesak aldeztu dituzte, eta interes horiek ez daude harmonian (idealistek uste bezala), lehian baizik, batura zero den joko batean bezala (hau da, estatu baten boterea eta segurtasuna haziz gero, besteen boterea eta segurtasuna gutxitzen dira). Azken batean, beren ikuspegiaren arabera, estatuen arteko harremanek etengabeko gerra-arriskua dute.

- c) *Boterea* handitu nahi dute, estatuaren lehentasunezko interesen bermerik onena direlako, hau da, estatuaren *biziraupenaren* eta *autobabesaren* edo segurtasun nazionalaren berme direlako. Nazioarteko sistema anarkikoa eta indarkeriazkoa denez, segurtasun nazionalak ez du nazioz gaindiko inolako aginterik bermatzen. Botere militarra edo diplomatikoa handituta baino ezin da lortu (*si vis pacem, para bellum*: bakea nahi baduzu, prestatu gerrarako). Beraz, alde batetik, botere militarra pilatuz lor daiteke, zehatz esateko, *botere erlatiboa* pilatuz; horrela, gure estatuaren boterea beste estatuen boterearen adinakoa edo handiagoa izango da, eta *disuasio* egoera sortuko du (gu ez erasotzea erabakiko dute). Bestetik, beste estatu batzuekin aliantzak ezarriko dira, «botere-oreka» lortzeko. Horri esker, hain zuzen ere, saihestu ziren zuzeneko talkak Gerra Hotzeko blokeen artean.

Legezkoa da estatu bakoitzak boterea handitzea bere segurtasuna bermatzeko, baina horrek etengabeko gatazka sortzen du, eta *segurtasun-dilema* ere bai, batzuetan⁴¹; hau da, boterea defentsarako soilik handitu arren, beharbada gainerako estatuak mehatxu bezala ikusiko dute boterearen hazkunde hori, eta, horren ondorioz, haiek ere botere militar handiagoa nahi izango dute, eta, azken batean, armamentuen lasterketa sustatuko da (Lehen Mundu Gerraren aurretik edo Gerra Hotzean bezala).

- d) Ez dago marko moral unibertsalik estatuaren gaintetik, bere jarduera uzkuartzeko (hala nola, kristau-moralitate tradizionalan oinarrituko errukia edo gizateriak osotasun gisa duen balioa). Hori dela eta, legezkoa da estatu bakoitzak bere interesak defendatzea, eta bere boterearen arabera egitea, zuhurtziaz edo komenentziaz aparte, bestelako mugarik izan gabe. Errealismo klasikoaren iritziz, estatuen barruan herritarrentzat indarrean dauden patro moralak ezin dira ezarri kanpo-politikan, batzuetan horrek ekintza batzuk egitera behartzen baititu gobernariak (gezurrak, heriotzak, tranpak...), eta ekintza horiek ez bailirateke onargarriak izango norba-

⁴¹ Honek sortu zuen kontzeptu hau: HERZ, John H. (1951), *Political Realism and Political Idealism. A Study in Theories and Realities*. University of Chicago Press, Chicago.

nakoentzat⁴². Gerra eta arerioa suntsitzea legezko bitartekoa da, eta ez die nazka moralik eman behar gobernariet⁴³. Are gehiago, Makiavelori jarraiki, kaltegarria da estatuetako buruzagiek printzipio etikoak jarraitzea, horrek beren interesak alde batera uztea esan nahiko bailuke.

Azken batean, errealismo politikoaren iritziz, nazioarteko harremanak estatu arerioen artekoak dira, boterea eta segurtasuna lortzeko borrokan ari baitira denak. Beraz, nazioarteko sisteman botere politiko-militarra lortzea da beren oinarrizko kezka. Kezka horrek ordezkatu ditu idealistek bi mundu-gerren artean izan zituztenak, hau da, gerren arrazoien azterketa eta nazioarteko zuzenbidea eta erakundeak sustatzea, bake iraunkorra bermatzeko bitarteko legez. Hori dela eta, *goi-mailako politikako* (*high politics*) gaiak dira beren ikerketa-agendaren ardatza, hala nola, diplomazia, estrategia, segurtasuna..., eta alde batera uzten dituzte *behe-mailako politikako* (*low politics*) auziak, esaterako, ekonomikoak, legezkoak, erakundeen arlokoak, sozialak, ingurumenekoak, etab.

3.4. Epistemologia positibista eta zientifismoaren eta tradizionalismoaren arteko eztabaida

Bigarren Mundu Gerraren ondoren, errealismo politikoak hegemonia zuen diziplinan, eta, horren ondorioz, ortodoxia jakin bat ezarri zen diziplinan, hala eremu ontologikoan (munduari buruzko ikuspegi jakin bat eta aztergai jakin batzuk), nola epistemologikoan (ezagutzaren sor-kuntza ulertzeko modu jakin bat). Arlo epistemologikoan, positibismoa ezarri zen, eta, orduz geroztik, bere mende egon da diziplina, 80ko hamarkadan positibismoaren ondorengo zenbait ikuspegik zalantzan jarri arren.

Positibismoaren oinarrizko postulatuen arabera, arlo sozialean (naturan bezala) erregularitate batzuk daude, enpirikoki, modu objektiboan eta neutralean (gure balioek azterketa baldintzatu gabe) azter daitezkeen gertaera batzuk, eta, ondorioz, gertaera horiek azalduko dituzten teoria zientifikoak egin daitezke.

Joera errealistak eta, oro har, NHek epistemologia positibista hori eta bere metodo zientifikoak hartu zituzten 60ko hamarkadan, diziplinako *bi-*

⁴² DUNNE, Tim eta Brian C. SCHMIDT (2011), «Realism», *op. cit.*, 86.-87. or.

⁴³ WIGHT, Martin (1991), *International Theory...*, *op. cit.*, 127., 208.-212. eta 220.-221. or.

garren eztabaida izenekoaren markoan⁴⁴; AEBn izan zen batez ere, eta bi ikuspegiren artean egin zen, tradizionalismoaren eta zientifismo edo behaviorismoaren artean⁴⁵. Nazioarteko harremanak aztertzeko metodologiarik egokiena zein zen eztabaidatu zen, batez ere.

Eztabaida horretan, tradizionalistek (Morgenthau eta beste batzuek) historiaren, zuzenbidearen eta filosofiaren balioa aldeztu zuten, bai eta ikertzeko metodo hermeneutiko klasikoak ere, hala nola, behaketa, intuizioa eta hausnarketa. Metodologia induktiboa eta deskriptiboa nahi zuten, kasu bakar bat hartu eta bere aldagai guztiak aztertzeko.

Horien aurrez aurre, ikertzaileen belaunaldi berria *iraultza behavioristan* oinarritu zen. Iraultza hori 50eko hamarkadan hasi zen gizarte-zientzietan. Beren ustez, metodo zientifiko positibista erabiliz, gizarte-zientzietan *legeak* aurki zitezkeen, natura-zientzietan bezala. Behaviorismoak bere egin zituen errealismoaren mundu-ikuskerara eta balioak, baina bere metodologiaren mugak gainditzea proposatu zuen, intuizioan oinarritzen zelako frogapenean baino gehiago. Metodologia zientifikoagoa, zorrotzagoa eta enpirikoagoa defendatu zuen; hipotesi egiaztagarriak formulatuz eta kasu askoren arteko harremanaren azterketan oinarritutako metodo deduktiboaren bidez, nazioarteko harremanak arautzen dituzten legeak objektibotasunez adierazteko gaitasuna zuena. Horretarako, metodo zientifiko desberdinak hartu zituen hainbat diziplinatatik (fisika, biologia, psikologia...). Haietako asko kuantitatiboak ziren, adibidez, ereduak eraikitzea, simulazioak, jokoaren teoria, hipotesiak egiaztatzea, aldagaien kuantifikazioa, estatistika, etab.

Metodo horien aurrez aurre, tradizionalistek erreakzio posbehaviorista sustatu zuten 60ko hamarkadaren amaieran. Behavioristei ihardetsi zieten beren azterketa kuantitatiboan muina forma zela, eta ahaztu egiten zirela substantziaz; metodologia zientifikoa hobetzeaz kezkatuta zeudenez, egiaztapen enpirikoa behar zuten gaiez arduratu zirela, baina gai horiek garrantzi txikia zutela nazioartean. Tradizionalistek ikerketaren *garrantzia* defendatu zuten, gizateriarentzat garrantzitsuak ziren gaietara itzultzea. Gainera, zientzia erabat neutroa sortzeko asmoa fiktizioa dela zioten, gaiak hautatze hutsarekin ikertzailea abiaburu batean edo bestean koka-

⁴⁴ Hedley BULL tradizionalistak eta Morton KAPLAN behavioristak *World Politics* aldizkarian 1966an izan zuten eztabaida izan zen abiaburua. Obrarik esanguratsuen eta bi joeren jarrerak hobeto azaldu dituen lana hau izan zen: KNORR, Klaus eta James N. ROSENAU (1969), *Contending Approaches to International Politics*, Princeton University Press, Princeton.

⁴⁵ Behaviorismoa (ingelesezko *behaviour*, jokaera, hitzetik datorrena) korrante bat da, eta zenbait parte-hatzaileen jokaera edo jarduera aztertzea du xede (kasu honetan, nazioarteko parte-hatzaileak).

tzen baita. Nazioarteko arazo garrantzitsuak aztertzeraz sustatzen zuen erreazio posbehaviorista horrek lagundu zuen 70eko hamarkadan nazioarteko sistemarekin eta errealismoarekin berarekin kritikoak ziren ikuspegi teoriko berriak ager zitezen: globalismoa, dependentziaren teoria edo bakerako ikerketa.

Tradizionalismoaren eta zientifismoaren arteko eztabaida 60ko hamarkadaren ondoren moteldu zen. Eztabaidaren ondorioz, onartu egin zen metodoa berez ez zela garrantzitsuena; teoriaren eta ikergaiaren garrantziaren mende dagoen tresna bat baizik ez dela, irtenbide praktikoak eskaintzea baita helburua. Alabaina, behaviorismoak eta berak eragin zuen eztabaidak bi eragin garrantzitsu izan zituzten diziplinan. Lehenik, klasikoen osagarri ziren metodologia berriak sartu zituen diziplinan, datuak biltzeko eta aztertzeko hainbat teknikarekin. Bigarrenik, diziplinak ikuspegi positibistak onartu zituen ia modu orokorrean.

Hala ere, postulatu positibistek eta korrante errealistak hainbat hamarkadatan (gutxienez, Gerra Hotza amaitu arte) izan zuten hegemoniak ondorio sakonak izan ditu diziplinan. Hasteko, 80ko hamarkadara arte ia ez zen epistemologiaz eztabaidatu; tresna metodologikoak baizik ez ziren eztabaidatu. Bestalde, eduki normatiboko eztabaidak baztertu zituen, esate baterako, nazioarteko harremanetako etikari, justiziari edo legezketasunari buruzkoak.

3.5. Neorrealismoa eta errealismo estrukturala

80ko hamarkadan, errealismo politikoak tradizio errealistako bigarren aldara bati egin zion tokia, *neorrealismo* izenekoari, alegia. Nazioarteko gertalekuan egon ziren aldaketan eta diziplinan izandako bilakaera teoriakoaren ondorioz agertu zen neorrealismoa; zehatz esateko, 60ko hamarkadaz geroztik errealismoaren alternatiba izateko sortu ziren ikuspegi teoriko berriek egindako kritikei erantzuteko beharragatik. Hain zuzen ere, faktore sustatzaile nagusiak bi izan ziren:

- a) Nazioarteko gertalekuan izandako aldaketek erronka egin zioten errealismo politikoak azaltzeko zuen ahalmenari. 70eko hamarkadan, baretzea egon zen bi blokeen artean, eta, oro har, handitu egin ziren mota guztietako mundu mailako interdependentziak. Horren ondorioz, arreta handiagoa eskaini zioten nazioarteko erakundeei, estatukoak ez ziren parte-hartzaileei eta faktore ekonomikoari. Eraldaketa horiek errealismoaren bi zutabe jarri zituzten zailentzen: estatuaren lehentasuna eta boterearen kontzeptua. Hala ere, 70eko hamarkadaren amaieran tentsioa areagotu zen nazioarteko harremanetan, batez ere AEBren eta SESBren artean. Tes-

tuinguru berria, gatazkatsuagoa izateaz gain, oso egokia zen errealismoa biziberritzeko, baina errealismoak eraldatu behar zuen, kritikak jaso baitzituen anakronikoa izateagatik eta gero eta konplexuagoa zen gizartearen aurrean azalpenak emateko gaitasuna galtzeagatik⁴⁶.

- b) Errealismoak bilakaera teorikoa izan zuen, 80ko hamarkadaz geroztik elkarrizketa sakona izan zuelako bere arerio historiko nagusiarekin: liberalismoarekin (hain zuzen, bere egungo aldaerarekin, hau da, neoliberalismoarekin). Horren ondorioz, elkarrengana gerturatu dira, eta hori izan da azken hamarkadetan diziplinan egon den prozesu nagusietako bat. Argi geratu zen bietako batek ere ezin zuela irabazi, eta, horren ondorioz, 90eko hamarkadan bi jorek beren jarrerak berrikusi zituzten, malgutzeko eta elkarrekin errazago uzartzeko. Hala ere, aldeak daude oraindik bi korronteen artean. Tradizio errealistak munduaz duen ikuskera anarkian, gatazkan eta boterea eta segurtasuna lortzeko estatuen artean izaten den borrokan oinarritzen da. Tradizio liberalak, berriz, lankidetzan oinarritutako harreman baketsuagoak lortu nahi ditu nazioartean. Hala ere, biek izan dute elkarrizketarako eta gerturatzeko jarrera, baztertu egin baitituzte aurrez giza izaeraz eta izaera politikoaz zituzten uste ideologiko asko, eta egiazta daitezkeen gai bakan batzuk hartu baitituzte ardatz. Horrela, bada, orain, hainbat elementu partekatzen dituzte: ikerketa-programa arrazionalista bera, nazioarteko sistemaren izaera anarkikoaren onarpena, eta lankidetzaren eta erakunde bilakaerari buruzko ikerketa⁴⁷. Gerturatze hori sustatu egin da, gainera, 80ko hamarkadaz geroztik ikuspegi pospositibistek eraso egin baitiete bi korronte arrazionalistei, eta, ondorioz, argi ohartu baitira batera dituzten elementuak gehiago direla bereiztekoak baino.⁴⁸

Neorrealismoa 80ko hamarkadan sortu zen, 1979an, Kenneth Waltz-ek *Theory of International Politics*⁴⁹ lana argitaratu ondoren; lan hori oso garrantzitsua izan zen diziplinaren bilakaeran, nazioarteko aldaketei eta

⁴⁶ MOURE, Leire (2015), «El realismo en la teoría...», *op. cit.*, 73.-74. or.

⁴⁷ SODUPE, Kepa (2003), *La teoría de las Relaciones...*, *op. cit.*, 57. or.

⁴⁸ Neorrealismoaren eta neoliberalismoaren arteko eztabaidari buruz, ikus BARBÉ, Esther eta SORIANO, Juan Pablo (2015), «Del debate neorrealismo-neoliberalismo a la (re)construcción del discurso dominante en Relaciones Internacionales», in ARENAL, Celestino del eta José Antonio SANAHUJA, *Teorías de las Relaciones Internacionales*, Tecnos, Madril, 127.-156. or.

⁴⁹ WALTZ, Kenneth N. (1979), *Theory of International Politics*, Random House, New York. Gaztelaniazko bertsioa dago: *Teoría de la Política Mundial*, GEL, Buenos Aires, 1988.

errealismo politikoak jasotako kritikei erantzuten saiatu baitzen. Neorealismoa (batzuetan, *errealismo estruktural* ere esan izan zaio, ikusiko dugunez, izen hori geroago beste ikuspegi baterako erabili bazen ere) errealismo klasikoaren erreforma partziala izan zen. Izan ere, errealismo klasikoaren funtsezko premisa filosofikoak onartzen zituen (nazioarteko sistema anarkikoa, estatu arrazional eta autonomoak parte-hartzaile nagusi gisa, estatu bakoitzaren segurtasun- eta botere-bilaketa), baina hainbat berrikuntza sartu zituen, batez ere lau hauek⁵⁰:

- a) Nazioarteko sistemaren birformulazio teorikoa egin zuen, hain zuzen, ardatza sistema eta egituraren jarritz. Errealismo klasikoaren arabera, estatuen kanpo-politikak eta beren arteko harremanak giza izaeraren (berekoikeria, oldarkortasuna...) eta estatuen banako jokoaren (beren segurtasun- eta botere-bilaketa) emaitza ziren. Neorealismoak, berriz, nazioarteko sistemaren egituraren arabera azaldu zuen hori guztia, hau da, bertan dagoen botere- eta gaitasun-banaketaren arabera. Horrela, bada, giltzarria ez dago estatuek dituzten ezaugarrietan ere (gobernu-formak, sistema ekonomikoak, ideologia politikoak, etab.).⁵¹

Ildo horretan, Waltzen ekarpen nagusietako bat da nazioarteko politika *nazioarteko sistema* gisa hartzeko ideia; sistema horrek el-karreraginak dituzten *unitateak* (estatuak) ditu, eta *egitura* bat ere badu, zeinek unitateen edo estatuen arteko antolakuntza eta elkarrekiko kokapena zehazten baititu. Nazioarteko sisteman, egiturak izaera deszentralizatua eta anarkikoa ditu (estatuko sistema zentralizatuek eta hierarkikoez ez bezala). Aitzitik, unitateak formalki berdinak dira; beren helburuak betetzeko gaitasun edo baliabide gehiago edo gutxiago izatea da beren arteko aldea. Horrela, bada, nazioarteko sistemaren egitura motaren (unipolarra, bipolarra, multipolarra...) ezaugarria da estatuen arteko gaitasun edo baliabideen banaketa era, polo (hau da, sistemako potentzia handiak) gehiago edo gutxiago izatea.⁵²

Egitura mota desberdinek nazioarteko sistemaren egonkortasunean eta segurtasunean duten zerikusiez egin zuen hausnarketa da Waltzen beste ekarpenetako bat. Garai hartan multipolaritatearen aldeko iritzia zen nagusi, baina berak sistema bipolarra defendatu zuen, Gerra Hotzekoa bezalako. Egonkortasun handiagoa eskain-

⁵⁰ WALTZEN teoriari buruzko iruzkinetarako, azterketa zehatz honetan oinarritu gara batez ere: SODUPE, Kepa (2003), *La teoría de las Relaciones...*, op. cit., 82. or. eta hurr.

⁵¹ BARBÉ, Esther (1995), *Relaciones Internacionales*, op. cit., 62. or.

⁵² WALTZ, Kenneth (1979), *Theory of International...*, op. cit., 98, 139, 145. or. Hemen aipatua SODUPE, Kepa (2003), *La teoría de las Relaciones...*, op. cit., 84.-85. or.

- tzen du, eta ziurgabetasuna murrizten, potentzia handiek gaitasun handiagoa baitute sistema zorrotz kontrolatzeko eta nazioarteko arazoak kudeatzeko. Ideia horiek eragin handia izan zuten Gerra Hotzaren amaieran, disuasio nuklearraren eta armamentu-lasterketaren inguruko pentsamenduan, bai eta Gerra Hotza amaitu eta gero sisteman ziurgabetasuna hazi izatearen pertzepzioan ere⁵³.
- b) Errealismo tradizionalaren ustez, estatuen jardueraren helburu nagusia zen boterea maximizatzea. Aitzitik, Waltzen eta neorrealismoaren iritziz, estatuen azken xedea ez da boterea lortzea, segurtasuna aurkitzea baizik, hau da, beren biziraupena ziurtatzea. Ingurua anarkikoa da, nazioarteko sisteman ez baitago estatuak baino agintaritza handiagorik, eta, beraz, estatuen gidaria «autola-guntza» () printzipioa da nahitaez, hau da, beren ekintzen mende daude beren segurtasuna bermatu ahal izateko. Gainera, estatuek ez dute lankidetzatza gustuko, besteak irabazi erlatiboak lortuko dituzten beldur direlako (nork bere irabaziekin alderatuz gero), eta gehiegizko interdependentziak beste estatuekiko ahultasuna sortuko duen beldur.
- c) Neorrealismoak arreta handiagoa eskaintzen die estatuen arteko harreman ekonomikoei; errealismo politikoak, berriz, ia begiratu ere ez zien egin. Alabaina, estatuek botereagatik duten lehiaren dimentsio bezala begiratzen die harreman horiei, ez beren arteko interdependentziako faktore bezala (liberalek egiten duten moduan).
- d) Amaitzeko, ekarpen metodologiko garrantzitsua egin zion diziplinari, zientifikoagoa, zorrotzagoa eta argiagoa izan zedin, eta hobeto eutsi ahal izan ziezaien errealismo klasikoaren aurka egindako erasoiei. Hortaz, metodo berriak ezartzen hasi zen, esate baterako, merkatuko egituren teoria mikroekonomikoa, neorrealismoaren ustez merkatuan aritzen diren parte-hartzaile ekonomikoen arteko elkarreraginen azterketa lagungarria izan baitaiteke nazioarteko sisteman estatuen artean dauden harremanak azaltzeko. Onartzen du hala batzuk nola besteak parte-hartzaile berekoiak direla, beren interesen arabera mugitzen direla, baina egiturak —behin ezarri ondoren— parte-hartzaileen jokaera mugatzen duten indarra dira.

Neorrealismoa eta Waltzen planteamenduak oso eztabaidatuak izan dira, eta kritika asko jaso dituzte, adibidez: a) metodologiaren gabeziak,

⁵³ ELMAN, Colin (2007), «Realism», in GRIFFITHS, Martin (arg.), *International Relations Theory for the Twenty-First Century. An Introduction*, Routledge, Londres eta New York, 18. or.; LAMY, Steven L. (2011), «Contemporary Mainstream Approaches: Neo-realism and Neo-liberalism», in BAYLIS, Jon eta Steve SMITH, *The Globalization of World Politics. An Introduction to International Relations*, Oxford University Press, Oxford (5. argit.), 118.-119. or.

eta bere planteamenduak nekez egiazta daitezkeela, metodo zientifikoak erabiltzen dituela esan arren; b) estatua ez diren beste parte-hartzaile batzuek nazioarteko sistemaren duten garrantzia kontuan ez izatea; c) bere ideia kontserbadoreak, AEBko interesen araberrakoak; eta d) egituraren oinarrizko bere teoriak dituen azaltzeko mugak.

Jasotako kritikei erantzunez, neorrealismoaren inguruko hainbat egilek ekarpen batzuk egin dituzte, Waltzen egiturazko teoriaren alderdirik ahulena osatzeko eta azalpenerako gaitasun handiagoa emateko⁵⁴. Ildo horretan, 90eko hamarkadaren hasieran formulatutako *errealismo estrukturala* nabarmendu behar da, hasieran izendapen hori neorrealismoarentzat erabili zen arren (eta, askotan, horren sinonimo bezala erabiltzen den arren). Ikuspegi hori Buzanek eta beste egile batzuek planteatu zuten⁵⁵ Waltzen neorrealismoa aipatutako kritiketatik erreskatatzeko, eta NHen teoria orokorra eta bateratua eraikitzeke asmoz. Neorrealismo horren oinarritzko premisak bere egiten ditu (estatuak izaera arrazional eta bateratutako parte-hartzaile nagusi gisa, beren boterearen arabera interesak kalkulatu eta jarduten dutenak), bere koherentzia intelektuala dela eta abiapuntu egokia dela uste duelako, baina erreformatu eta indartu egiten ditu azalpen urriak zituzten zenbait alderdi. Hori dela eta, ekarpen batzuk hartzen dituzte neoliberalismotik eta *Eskola Ingelesa* izenekoetik, hala nola, *erregimenen* teoria (geroago ikusiko duguna). Beraz, errealismo estruktural horren formulazioa izan da neorrealismoaren eta neoliberalismoaren artean izandako elkarriketaren fruitu nagusietako bat.

Zehatzago esateko, Waltzen neorrealismoaren puntu ahul hauek osatu nahi izan ditu errealismo estrukturalaren ikuspegi berriak:

- a) Nazioarteko sistemaren botere-egitura kontzeptuaren definizio estuegia, bestelako faktoreak (ekonomikoak, esaterako) alde batera utzi, eta soilik faktore politikoetan oinarritzen dena. Horren aurrean, *botere* kontzeptua hainbat motatan zatitzea proposatzen du (militarra, politikoa, ekonomikoa eta ideologikoa), lagungarria izango baita nazioarteko sistemaren botere-egitura batzuk zein egoeratan aldatzen diren eta zeinetan ez azaltzeko. Era horretan, egitura ez dute soilik faktore materialek definitzen, faktore ez-materialek ere zehazten baitute (faktore ideologikoez, prestigiooak, lidergoak, eta abarrek).

⁵⁴ Horretarako, azterketa honetan oinarritu gara: SODUPE, Kepa (2003), *La teoría de las Relaciones...*, op. cit., 95.-116. or.

⁵⁵ «Errealismo estrukturala»ren proposamena hemen formulatu zen: BUZAN, Barry, Charles JONES eta Richard LITTLE (1993), *The Logic of Anarchy: Neorealism to Structural Realism*, Columbia University Press, New York.

- b) Determinismo ia erabatekoa, nazioarteko sistemaz egiten duen azterketa egituran oinarritzen baita, eta alde batera uzten baititu bera eratzen duten parte-hartzaileen ezaugarriak eta ekintza. Hori dela eta, Buzanek eta beste egile batzuek bi zentzutan aberastu nahi izan dute sistemaren kontzeptua. Alde batetik, diotenez, egituraz eta unitateez gain, sisteman unitate horien arteko elkarreraginak ere badaude, eta elkarreragin horiek hainbat faktorek zehazten dituzte: garraio bideek, hedabideek edo nazioarteko erakundeek eta arauak. Bestetik, haien ustez, nazioarteko sistemako gertakari askoren azalpena ez dago sistemaren egituran, estatuaren barneko faktoreetan baizik.
- c) Nazioarteko sisteman izandako aldaketez egiten duen azalpen urria (adibidez, Gerra Hotzaren amaiera azaltzeko duen ezintasuna), sistemaren jarraipenak nabarmentzen dituelako, eta egitura kontzeptuaz duen definizioa estu-estu delako. Horren aurrez aurre, errealismo estrukturalak politikoak ez diren faktoreak eta lehen aipatutako elkarreraginak ere sartzen ditu, eta, horien bidez, aldaketak hobeto azal ditzakeela uste du.
- d) Sisteman dauden lankidetzako mekanismo ugariak ez azaltzea. Aldiz, errealismo estrukturala bat dator instituzionalista liberalekin lankidetzaren egonkorra izan daitekeela esatean, eta ez soilik koiunturala.

3.6. Errealismo ofentsiboa, defentsiboa eta neoklasikoa

Waltzen neorrealismoari buruzko kritikek eta eztabaidek hiru aldaera sortu dituzte azken hamarkadetan errealismoaren barruan: errealismo ofentsiboa, errealismo defentsiboa eta errealismo neoklasikoa. Hainbat desberdintasun daude haien artean, hala munduari buruzko ikuspegi teorikoan, nola haien ondoriozko proposamen politikoetan.

Errealismo defentsiboa (*errealismo estruktural defentsibo* ere deitua) 1980ko hamarkadaren amaieran sortu zen, gehienbat Stephen M. Walt-en eta bere *The Origins of Alliances* lanaren eskutik⁵⁶. Ikuspegiak defentsibo izena du, estatuaren helburu nagusia segurtasuna dela onartzen duelako (ez boterea metatzea), eta segurtasuna gordetzeko modurik arrazoizkoena nazioarteko *statu quo*a babestea dela uste duelako; ahalik eta botere eta hegemonia gehien bilatu beharrean, arrazoizkoena da estatuak bere buruari eustea, botere kopuru «egoki» bat baizik ez edukitzea⁵⁷, eta

⁵⁶ WALT, Stephen M. (1987), *The Origins of Alliances*, Cornell University Press, Ithaca, New York (AEB).

⁵⁷ ELMAN, Colin (2007), «Realism», *op. cit.*, 22. or.; LAMY, Steven L. (2011), «Contemporary Mainstream...», *op. cit.*, 211. or.

kanpoko politika neurritsua eta defentsiboa abiaraztea. Ikuspegi honek onartzen du estatuek batzuetan onura horiek lor ditzaketela, hain zuzen, kanpoko politika oldarkorrek dituztenean, baina salbuespentzat du hori. Gainera, dioenez, hori ez da gertatzen estatuek botere handiagoa lortu nahi dutelako, baizik eta mehatxatuta sentitzen direnean segurtasuna bermatu nahi dutelako⁵⁸. Izan ere, normalean, politika erasokorren bidez zabalkuntza eta hegemonia lortu nahi dituzten herrialdeek beste estatu batzuen erresistentzia eta zigorra jasaten dituzte, beste horiek estatu quoari eutsi nahi diotelako. Bestalde, politika erasokor horiek ziurgabetasuna handitu dezakete beste estatuen artean, eta *segurtasuneko dilema* sortu; hain zuzen, goraldi armamentistikoa kiribilean edota gerra. Azken batean, politika erasokor horiek zentzugabeak dira, eta kalte egiten diote estatuaren segurtasunari.

Errealismo defentsiboak —neorrealismoak ez bezala— ez du sinesten estatuen jokaera soilik boterearen nazioarteko egitura edo banaketaren bidez azal daitekeenik; horrez gain, beste faktore batzuk egongo lirarteke, etxeoak eta banakakoak, bereziki estatuen eta haien gobernarien pertzepzioak (estereotipoak, arerioaren irudiak, erkatze historikoak, galtzeko beldurra, etab.)⁵⁹. Hala, bada, estatu indartsuago baten aurkako aliantzak ondo azal daitezke gainerako estatuetan sortzen duen mehatxu-pertzepzioa kontuan izanda —ez, hainbeste, botere-banaketaren bidez—. Era berean, gobernariak mehatxutzat har ditzakete beste estatu batzuek hartutako neurriak, eta erantzuna eman diezaiekete, konfrontazioaren goraldia sortuz kiribil moduan (*segurtasunaren dilema*). Beste batzuetan, eliteek mehatxu-arriskua puztu dezakete, ideia edo politika espansionistak zuritzeko.

Bestalde, *errealismo ofentsiboaren* (edo *errealismo estruktural ofentsiboaren*) adierazle nagusiak John Mearsheimer eta 2001ean egin zuen *The Tragedy of Great Power*⁶⁰ lana dira. Nazioarteko ingurune anarkikoan eta badaezpadakoan, estatu guztiak izan daitezke erasotzaile, eta, horregatik, beren buruaz baizik ezin dira fidatu, segurtasuna izateko. Segurtasuna izateko, ahalik eta botere erlatibo gehien eskuratu behar dute (beste estatu batzuen boterearekin erkatuta), baina horrek ez du ezinbestean eragin behar gainerako estatuen erantzuna, hau da, segurtasunaren dilema, errealista defentsiboek esaten dutenez. Errealista defentsiboentzat ez,

⁵⁸ MOURE, Leire (2015), «El realismo en la teoría...», *op. cit.*, 87. or.

⁵⁹ WALT, Stephen M. (1987), *The Origins...*, *op. cit.*; WOHLFORTH, William (1993), *The Elusive Balance: Power and Perceptions during the Cold War*, Cornell University Press, Ithaca, New York.

⁶⁰ MEARSHEIMER, John J. (2001), *The Tragedy of Great Power Politics*, W.W. Norton, New York.

baina, errealismo ofentsiboaren ustez, boterea maximizatzea da bizirau-pena eta segurtasuna izateko bitartekorik arrazoizkoena, betiere, onurak kostuak baino handiagoak badira⁶¹. Horretarako, estatuek ahalegina egiten dute beren gaitasun materialak eta militarrik handitzeko, muskulua eta garuna uztartuz: gerrara jotzen dute irabaziaz sortuko dituela kalkulatu dutenean, baina hain erasokorrek ez diren jarrerak hartzen dituzte porrotak saihesteko, edo arerioak xaxatzen dituzte, gerra elkarri egin diezaioten. Azken segurtasuna izateko, munduko estaturik boteretsuena izan behar da, baina, hegemonia globala izatea ia ezinezkoa denez, helbururik sinergiarria da eskualdeko hegemonia lortzea eta beste inork ez izatea eskualdeko hegemoniarik. Hortaz, superpotentzien artean beti egongo da lehia, ezinbestean⁶².

Azkenik, *errealismo neoklasikoa* dago, eta Randall Schweller du buru. Errealismo neoklasikoa onartzen du nazioarteko sisteman gaitasun materialen eta boterearen banaketa dela estatu kanpoko jokaeraren abiaburua. Hala ere, ikuspegi neorrealistek ez bezala, neoklasikoen ustez faktore nazional bereziek ere eragin handia dute: egitura eta instituzio nazionalak, barneko prozesu politikoei, ideologiak, kohesio sozialaren mailak, eta buruzagien anbizioak eta pertzepzioak (nortasunak, emozioak, arriskuaren beldurrak...), horiek eragin handia baitute nazioarteko politikan. Faktore horiek bideratzen dituzte kanpoko presioei ematen zaizkien erantzun politikoak, eta faktore horienatik hartzen dituzte estatu batzuek nazioarteko estrategia asaldatzailak eta erasokorrek⁶³. Azken batean, estatuak duen jokaeraren arrazoia faktore estruktural, estatal eta indibidualen elkarketaren emaitza da, ez mota bakar bateko faktoreen fruitua. Hala, bada, *neoklasiko* izena du, Waltz aurreko ikuspegi errealistetara itzultzen delako; izan ere, nazioarteko harremanak ez daude soilik nazioarteko sistemaren egituraren mende; gizakiek eta haiek sortutako instituzioek egindako ekintzen mende ere badaude (Moure, 2015:93).

3.7. Balantzea: nagusitasuna eta kritikak

Tradizio errealista izan da diziplinan eragin handiena izan duena eta bere bereizgarriak gehien zehaztu dituen. Bilakaera teoriko garrantzitsu baten emaitza izan da, eta hainbat aldaera sortu ditu. Aldaera horiek

⁶¹ MOURE, Leire (2015), «El realismo en la teoría...», *op. cit.*, 90. or.

⁶² MEARSHEIMER, John J., *The Tragedy of Great Power Politics*, W.W. Norton, New York (AEB), 2001, 140-162, 337.-346. or.; ELMAN, Colin, «Realism», *op. cit.*, 23. or.

⁶³ SCHWELLER, Randall L. (1994), «Bandwagoning for Profit: Bringing the Revisionist State back in», in *International Security*, 19. lib., 1. zk., 72.-107. or.; ELMAN, Colin (2007), «Realism», *op. cit.*, 25.-27. or.

oinarri batzuk izan dituzte batera: nazioarteko sistema anarkiko bat da-goela, eta, bertan, estatuen arteko harremanen xedea segurtasuna bilatzea dela.

Diziplinan duen zeregin nagusiaren ondorioz, errealismoak kritika ugari jaso ditu gainerako korrante teorikoen aldetik. 70eko hamarkadan zalantzan jartzen hasi zen nazioarteko gertaleku konplexuagoa eratzen zuten dinamika edo erreallitate berriak azaltzeko zuen ahalmen urria; adibidez, hauek azaltzeko: estatuen arteko lankidetzarako loturak eta elkarrreraginak, gero eta handigoak; Iparraren eta Hegoaren arteko desoreka sozioekonomiko handiak; estatuen garrantziaren galera, beste parte-hartzaile batzuekin erkatuta (nazioarteko erakundeak, enpresa multinazionalak, gizarte zibila, etab.); edo mundu mailako arazoan garrantzia, gero eta handiagoa (esaterako, ingurumenaren arloko arazoena). Oraintsuago, bere estatuzentrismoa jarri da zalantzan, hainbat faktoreren ondorioz: barneko (eta ez estatuen arteko) gerren nagusitasuna, herrialdeen arteko integrazio-prozesuak, edo estatuen subiranotasunaren erlatibizazioa, esku-hartze humanitarioak bezalako praktiken bidez.

Kritikak gorabehera, ziur aski tradizio errealista da gaur egun ere eragin handiena duena, argi erakutsi baitu «erraztasun handia duela bere burua egokitzeko», bere postulatuak malgutzeko eta arian-arian doitzeko, haiek gezurtatzen zituzten erreallitate berrien arabera⁶⁴. Gerra Hotzaren eta konfrontazio bipolarraren amaieran, krisian murgildu zen aldi batez, baina gero berriz piztu da, arazo eta segurtasunerako mehatxu berriak aztertuz. Ildo horretan, 2001eko irailaren 11ko atentatuek eta Terrorismoaren Aurkako Gerra Globala izenekoak aldeko testuingurua sortu zuten azterketa errealistak egiteko. Ez alferrik, errealista askoren ustez, globalizazioak ez du bake eta garapenik sortzen —liberalek diotenez—, ahultasun eta mehatxu mota berriak baizik.

Dena dela, errealismoak izan duen hegemonia ez da soilik bere nolakotasun teorikoen ondorioa izan. Hein handi batean, AEBko kanpo-politikan izan duen eraginaren emaitza izan da, eskuliburu moduko zerbait eman baitzien AEBko gobernariak, munduko superpotentzia gisa beren interesak babes zituzten. Hortaz, errealismoa ez da nazioarteko harremanei buruzko ikuskera zientifikoa eta neutroa. Ikuspegi partikularra eta interesatua da, ordea, herrialde horretako balioek eta interesek erabat markatua. Ikuspegi politiko kontserbadorea da, *statu quo*a gordetzera bideratua; eta, Paul D. Williamsek dioenez, segurtasuneko politikei eman dien garrantzia gailu modura erabili da, aldaketa sozial eta politiko erra-

⁶⁴ ELMAN, Colin, «Realism» (2008), in WILLIAMS, Paul D. (arg.), *Security Studies: An Introduction*, Routledge, Londres, 2008, 26. or.

dikalei aurre egiteko⁶⁵. Era berean, bere nagusitasuna eta diziplinaz duen kontrola balazta modukoak izan dira, bestelako ikuspegi teorikoak gara zitezen oztopatu baitute⁶⁶.

⁶⁵ WILLIAMS, Paul D. (2008), «Security Studies: An Introduction», in WILLIAMS, Paul D. (arg.), *Security Studies: An Introduction*, Routledge, Londres, 3. or.

⁶⁶ VASQUEZ, John A. (1998), *The Power of Power Politics: from Classical Realism to Neotraditionalism*, Cambridge University Press, Cambridge, 20. or.